

**GIZARTE-ZERBITZUAK: BAIMENA, ERREGISTROA, IKUSKAPENA ETA KONTROLA**
**DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA**

EPIGRAFEA	OINARRIZKO INFORMAZIOA	INFORMAZIO ZEHAZTUA
<b>Arduraduna</b>	Administraziozako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia.	Administraziozako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia, Ugaskobidea 3 bis, 48014 Bilbo  Datuen babesaren arloko ordezkaria: Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atala (Kale Nagusia 25, 48009 Bilbo)
<b>Helburua</b>	Egiaztatzea gizarte-zerbitzuen zerbitzu, zentro eta entitateek aplikatu beharreko araudia betetzen duten.	Datu pertsonalak honako helburu honetarako erabiliko dira: Egiaztatzea gizarte-zerbitzuen zerbitzu, zentro eta entitateek aplikatu beharreko araudia betetzen duten.  Emandako datuak gizarte-zerbitzuei lotutako baimente-, erregistratze-, ikuskatze-, kontrol- eta (hala badagokio) zehatze-eginkizunetarako behar dira.  Ez da hartuko zure datuetan oinarritutako erabaki automatizaturik, eta zure datuak ez dira erabiliko zuri buruzko profilik egiteko.
<b>Legitimazioa</b>	Ahal publikoak baliatzea, legezko betebeharrak betetzea eta eskabidea sinaturik ematen den adostasun espresua.	Zure datuak honako manu hauetan jasotako botere publikoen eskumenak baliatuz tratatuko dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.</li> <li>27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen arteko Harremani buruzkoa.</li> <li>39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.</li> <li>12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.</li> <li>Aplikatu beharrekoa eta indarrean den beste edozein araudi.</li> </ul> Eskabidea sinatuta, baimena ematen duzu beste iturri batzuetara sar gaitzen, indarrean dagoen araudiarekin bat, xede hauetarako: beste administrazio batzuek egindako edo haiei lehenago aurkeztutako datuak eta agiriak ez aurkezteko duzun eskubidea bermatzeko, zure nortasuna eta emandako datuen benetakotasuna egiaztatzeko, bai eta araudiak eskatutako baldintzak eta betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko ere.  Eskatutako datuak emateari eta sarbide horiek baimentzeari uko egiteak ezinezkoa egingo du zure eskaera izapidetzea.
<b>Datuak gordetzea</b>		Zure datuak aipatutako xederako beharrezkoak diren bitartean gordeko dira, eta, xedea amaituta, nahitaez bete behar diren lege edo arauak ezarritako betebeharrak eta erantzukizunak betetzeko legez ezarritako epeetan zehar, edo Bizkaiko Foru Aldundiari hala eskatzen zaionean zuzenbidearekin bat eskumena duen agintaritzara aginduz.
<b>Helburua</b>	Datu pertsonalak legezko betebeharrak batek aginduta edo baimena ematen duzunean baino ez dira lagako. Ez da aurrez ikusten hirugarren herrialde batzuetara edo nazioarteko erakundeetara datu-transferentziarik egitea.	Datu pertsonalak legez ezarritako mugekin edo baimena ematen duzunean laga ahal izango zaizkie hauei: <ul style="list-style-type: none"> <li>Edozein erakunderi, organismori, administrazio publikori edo justizia administrazioari.</li> </ul> Ez da aurrez ikusten hirugarren herrialde batzuetara edo nazioarteko erakundeetara datu-transferentziarik egitea.



EPIGRAFEA	OINARRIZKO INFORMAZIOA	INFORMAZIO ZEHAZTUA
<b>Eskubideak</b>	Zure datuetan sartu, datuok zuzendu edo ezabatzeko eskubidea edo datuen tratamendua mugatu edo tratamendu hori aurkaratzeko eskubideak. Idazki bat bidali beharko duzu helbide honetara: Ugaskobidea 3 bis (48014) Bilbo.	Zure datuetan sartu, datuok zuzendu edo ezabatzeko edo datuen tratamendua mugatu edo tratamendu hori aurkaratzeko, idatzizko komunikazio bat igorri beharko duzu (nortasun agiriaren fotokopia bat erantsita), hona: <ul style="list-style-type: none"><li>Ugaskobidea 3 Bis (48014) Bilbo.</li><li>Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bide erabilita.</li></ul> Halaber, adostasuna kentzeko eskubidea duzu, aurretik egindako izapideen zilegitasunari eragin gabe. Eskubide horietako baten bat baliatzeko aukera mugatu egin daiteke bateraezina denean botere publikoen jardunarekin edo aplikagarria den araudiaren arabera legezko betebeharrak betetzearekin. Era berean, kontrol agintaritzaren aurrean ( <a href="http://www.avpd.euskadi.eus">http://www.avpd.euskadi.eus</a> ) erreklamazioak egiteko eskubidea duzu, datuen babesaren alorrean dituzun eskubideak urratu direla uste baduzu.
<b>Jatorria</b>	Interesduna edo haren ordezkaria, eta beste administrazio, erakunde, erregistro edo entitate publiko edo pribatu batzuk, legeak ezartzen dituen mugen barruan.	Erakunde eta zentroi dagokienez, eskuratzeko moduko datuak izango dira –legez ezarritako mugen barruan– entitate, zentro edo zerbitzuaren titularraren eta/edo kudeatzailearen eta langileen identifikazio-datuak, bizilekuari buruzkoak, akademiko eta profesionalak, merkataritzakoak, banku- eta finantza-datuak, ekonomikoak eta ondareari buruzkoak, iturri hauek emandakoak: <ul style="list-style-type: none"><li>Interesdunak edo haren ordezkariak.</li><li>Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak.</li><li>Interesduna bizi den udaleko udal erroldaren bulegoak.</li><li>Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak eta beste zerga administrazio batzuek.</li><li>Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak.</li><li>Gizarte-zerbitzuak ematen dituzten erakundeek eta zentrokek.</li><li>Halako datuak dituen beste edozein erakundek edo administrazio publikok.</li></ul> Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei dagokienez, identifikazio-datuak, bizilekuari buruzkoak, inguruabar pertsonal eta sozialei buruzkoak eta osasun-arlokoak eskuratu ahal izango dira, legez ezarritako mugen barruan, iturri hauek emandakoak: <ul style="list-style-type: none"><li>Interesdunak edo haren ordezkariak edo haren senideek.</li><li>Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak.</li><li>Gizarte-zerbitzuak ematen dituzten erakundeek eta zentrokek.</li></ul>
<b>Informazio zehatza</b>	<a href="https://www.ebizkaia.eus/es/catalogo-de-tramites-y-servicios">https://www.ebizkaia.eus/es/catalogo-de-tramites-y-servicios</a> Dagokion prozeduran.	